

Mikel Hirigarren

LABORARIA

Zuberoako Battitta laguna



raintxe ikusi ahal izan ditugu hiru antzerki motz eta berri Kanbon, Baxenabarreko Ximun Fuchs antzezle bakarlariek emanik. Hiru monologo Dario Fo idazle italiar sarituarenak, euskaraz itzuliak eta egokituak.

Gorestekoa idazlana bera naski, baita nolaz ez Fuchs antzezleak agertu talentu beteak.

Hirugarren monologoa “Eroa” deitzen da. “Ertzoa” zuberotarrez. Zuberoako euskararen egokitua baita antzezlan hau. Gizagaixo bat, maskaradetak buhame itxuraz jauntzia, bakarrik bizi nonbait bere herriko sukalde batean. Egunak badoazkio karta jokoan panpina erraldoi pare batekin, hasez eta lausenguz. Noizbait, lili lehortu itxura berezi batez agertzen zaio etxe barnean, eta honekin abiatzen du elkarrizketa luzea. Heriotzaren anderea zaio hurbildu oraingoan, buhame eroari, eta honek bere lur gaineko bizia laket izanez, zazpi eginahalak egingen ditu herioaren engainatzeko.

Hain umoretsua eta sarkorra iruditu zaigun antzezlan honekin, gizon emazteen bizitza uzten duela harreman joko huts bezala, heriotzaren izatea nahitaezko hitzordu arruntaren pare, jakin gabe gehiegi zergatik, gure Zuberoako Battitta laguna erakarri digu gogora.

Duela bost urte galdu genuen Zuberoako lagun hau, Battitta Bordagarai. Minbiziak eraman zuen berrogei eta bost urtetan Liginagakoa. Beste hainbeste eramaten dituen bezala eritasunak.

Egunkaria hetsi zuten egun haietan egin zuen okerrerat Battittaren osagarriak. Loturarik ez zen berez Andoain-Lasarteko gertakarien eta zuberotar baten osasun arazoaren artean. Nahiz, laurogeiko urte alde haietan, Hegoaldetik Zuberoa ezagutzen ausartu zirenak izan ziren, eta adixkide harremanak sortu ziren hain mundu ezberdin hauetako lagunaren artean, hala



GAIZKA IROZ

nola Zuberoako Battitta eta *Egunkari*atik auzipetua izan zen Pelloren artean!

Gaizki ulertzerik ez dadila izan. Battitta ez zen buhamea, ezta zelarik ere batere eroa. Etxe bat baino gehiago ezagutu diogu, lehenik Gotainen eta ondotik Omizegainen, atea bihotza bezain zabalik atxikitzen zuela. Zuberoako lagunak egun gehienez ibiltzen zitzaizkion bisitari, bere herria eta mundu gehiena itzulipurdikatzen zutela solasaldi luzeetan, manex herrialdeko eta Hegoaldeko lagunak ere badira saldoa Battittaren etxean ongi etorri eta ostatu hartu dutenak!

Esku langilea zen ogibidez, mekanika ikasia zuen ofizioz, baita ere afizioz. Eta ezagutu dutenek badakite atsegin zuela esku biak ikatza bezain beltz zituelarik lagun berebil zaharren txapapetik altxatzen, motor hots borobila entzuten zueneko.

Zuberotarra zen Battitta, Basabürüiako ibar hartan sortua. Entzun eta mintzatu bazuen euskara haurtzarotan, arrotzu egin zitzaion ama hizkuntza gaztaroan. Soldaduzkoan gogo kontra izan zela hainbeste aldiz aitortzen zuen, eta ordutik landa, urtez urte, abertzalegoari oharatu eta abiatu da.

Ohitura zaharrei hain atxikia den Zuberoako herrialdeak euskararen erabilera galtzen ari zuen garaian, berriz ikasi zuen Battittak bere euskalkia, eta urte luzez ibili da AEKko langile bezala Zuberoan euskararen irakasle.

Abertzale gisa, Zuberoako lagunaren koadrilak ala errefuxiatuek badakite nehork baino hobeki zer lan eraman duen eta nolako Euskal Herria amesten zuen.

Guk badakigu gogoz eta bihotzez Herri berri baten eraikitzeko indar guztiak utzi zituela Battittak. Engainatu ahal izan balu heriotza, beste hainbeste urrats eta lan emanen zuen. ■

TXANDAN

Andoni Mujika

Sabino Arana



Liderrek prozesuetan daukaten inportantzia leuntzeko joera daukagu, nire inguruan behintzat, hala da. Horien nahitaezko beharra ikusten ez dugulako baino –hain zintzoa ez den– umiltasun edo taldearekiko sasi-leialtasun baten ondorioa delakoan nago. Taldeek liderrak behar dituzte eta alderantziz. Pista honi jarraituta, oraintsu, nire buruari galdetzen nion, Euskal Herriak, bere osotasun banaezinean, izan ote duen tamaina horretako aitzindariak. Golpean etortzen zitzaidan erantzun tematia behin eta berriz: Sabino Arana. Eta maila bat gehiago igoko dut, bera

izan da *zazpiak batek* aro modernoan izan duen liderrik esanguratsuena. Egun, hainbat herri indigenei falta zaien auto-konfiantza transmitzen jakin zuen eta konplexu bihur zitekeena, auto-gorrotoraino, harrotasun bihurtzen jakin zuen. Eta lider handiek egiten dutena ere egin zuen, hau da, formulatu eta gero, “Euskaldunon aberria Euzkadi da”, herri-gogoak katalizatu eta iparra marraztu. Ontzi xumeezia izateko arrisku bizian zegoena –modernitatearen uretan nabigatu behar zuen Euskal Herria– espainolen parean, parean ez, gorago jartzen jakin zuen. Hoberik irten arte, bera da euskaldunon norabiderik argiena. ■